



## IMPOSSIBLE TRANSLATIONS

Alberto Lomas

Partehartzailea / Participa: Amaia Vicente

Laguntzailea / Colabora:



BilbaoArte Fundazioa  
Fundación BilbaoArte



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

## Ezinezko translazioak

Zer garaitan bizi gara? Zer espaziotan? Zer errealitate sozioekonomikotan gabilta zu eta ni, eta alboan dugun hori? Zer koordinatu politikotan? Zer unibertso kulturaletan? Azaltzen jakingo genukeela uste izanda ere, elkarri kontatzerik izango ote genuke? Eta zer zati ulertuko genuke eta zer zati gertuko litzateke gure kulturaren, gure hizkuntzaren, gure esperientziaren, gure gaitasunaren, gure ezagutzaren tolesduren artean kateatuta?

Translazioek mugimendua dakarte. Ohikoenetakoa den adieretako batean, translazioak ezer aldatu gabe mugitzea esan nahi du, ez itxurarik, ez neurrik, ezta ekintzan esku hartutako elementuen ezaugarrikerik ere. Translazioa mugitze hutsa litzateke. Baina lurralde horretan ere ez da translazioa ageriko kontu bat. Zerbait mugitzen denean simetriak sortzen dira eta hor, objektuaren eremua zabaldu egiten da, zaildu. Eta burura Lurra Eguzkiaren inguruan biraraztea eragiten duen translazio ezagun eta ondo ezagun hori etortzen bazaigu, are gehiago murgilduko gara mugimenduaren ezintasunean eta daezintasunean.

Baina translazioak beste hizkuntza batera itzultzea ere esan nahi du, bestea ulertu nahi izatearen antzeko zerbait, alboan bizi arren gure perimetrotik kanpo dagoen hura, beste testuinguru, kultura, errealitate batean ikasi duen hura. Translazioetarako, zehaztapen handiagoko edo txikiagoko hiztegiak daude, ezinezko translazioak, beste tresna batzuk bilatu behar dira. Izan ere, hizkuntzak askotarikoak dira, gizakiak bezainbat, ez baitira beti hitz idatziak erabiltzen, ezta ahoskatutako hitzak ere. Batzuetan mugaz, desberdintasunez, alde ekonomikoez, bizipen pertsonenez eginda daude.

Pentsa liteke teknikak eta teknologiak eskaintzen dizkiguten tresna berriek leunduko lituzketela ia araurik ezagutzen ez dugun hizkuntza horietako ertzak, edo gutxienez lurralde komun batera eramango gintuzketela. Baina bereizgabeko bidaiak batetik bestera mugitzen gaituzte, eta unibertso birtualetako sartu-atera horiek dagoeneko menderatu ezin ditugun algoritmoen gainean garamatzate. Horregatik da ezinezkoa saiakera hau, horregatik da ezinbestekoa saiakera hau.

Ezinezko translazio hauen barruan, gainera, VALA kolektiboaren proiektua dago, Amaia Vicente eta Alberto Lomasek berak osatutako kolektiboa. Instalazioaren izenburuak honako hau dio: “You are welcome”. Berriz ere, kodetutako mezua, ikusleari hitzez egindako alanbre-hesiak inguruan dituen alfonbra gorrian pasatzeko gonbidapena egiten zaiola, hamarka etorkin harrera-mezuak esanez entzuten dituen bitartean, hizkuntza ugaritan eta intentsitate ugaritan, xuxurlatzetik oihuka aritzera.

Edo agian “You’re welcome” horrek beste esanahi batera garamatza, ikuslea izaki aske bihurtzen duen esanahira, ez eskatu, ez eskertu behar ez duena, belarriak zabalik eta arreta jarri besterik egin behar ez duena? Berriz ere beste ezinezko translazio bat.

## Translaciones imposibles

¿En qué tiempo vivimos? ¿Y en qué espacio? ¿En qué realidad socioeconómica nos movemos tú y yo y el que está a nuestro lado? ¿Y en qué coordenada política? ¿Y en qué universo cultural? Suponiendo que lo supiéramos explicar ¿podríamos contárnoslo los unos a los otros? Y qué parte entenderíamos y cuál se quedaría enganchada entre los pliegues de nuestra cultura, de nuestra lengua, de nuestra experiencia, de nuestra capacidad, de nuestro conocimiento.

Las translaciones implican movimiento. En una de sus acepciones más habituales, translación implica mover sin cambiar nada, ni el aspecto, ni el tamaño, ni las características de los elementos que entran en acción. Translación sería tan solo mover. Pero ni siquiera en ese territorio la translación es algo evidente ni manifiesto. Cuando algo se mueve surgen las simetrías y ahí el campo del objeto se ensancha, se complica. Y si nos viene a la mente esa translación conocida y reconocida que hace que la Tierra gire alrededor del sol, aún nos adentramos más en la imposibilidad del movimiento y la inmutabilidad.

Pero translación también significa traducción a una lengua diferente, algo así como querer entender al otro, al que habita más allá de nuestro perímetro aunque viva al lado, al que ha aprendido en otro contexto, en otra cultura, en otra realidad. Para las translaciones existen diccionarios de mayor o menor precisión, para las translaciones imposibles hay que buscar otras herramientas. Porque los lenguajes son tan variados como los seres humanos, porque no siempre utilizan las palabras escritas, ni siquiera las palabras pronunciadas. A veces están hechos de fronteras, de desigualdades, de diferencias económicas, de vivencias personales.

Podría pensarse que los nuevos instrumentos que nos proporcionan la técnica y la tecnología ablandarían las aristas de unos lenguajes de los que apenas conocemos las reglas, o cuando menos nos llevarían a un territorio común. Pero los viajes indiscriminados tan solo nos mueven de un lado a otro y las incursiones en los universos virtuales nos están haciendo cabalgar en algoritmos a los que somos ya incapaces de domar. De ahí lo imposible de este intento, de ahí lo imprescindible de este intento.

En el interior de estas translaciones imposibles habita, además, un proyecto del colectivo V.A.L.A., formado por Amaia Vicente y el propio Alberto Lomas. El título de la instalación proclama: “You are welcome”. De nuevo un mensaje codificado para indicar, quizás, que el espectador es bienvenido a transitar por esta alfombra roja flanqueada por alambradas hechas de palabras, mientras escucha a decenas de personas inmigrantes lanzar su mensaje de acogida en distintas lenguas, con distintas intensidades que van del susurro al grito. ¿O tal vez “You’re welcome” remite a ese otro significado que hace del espectador un ser libre, que no necesita pedir ni agradecer, que tan solo ha de tener los oídos abiertos y prestar atención? De nuevo otra translación imposible.